

Kostu egitura

Honako hauek izago dira gure enpresak izango dituen kostuak lehenengo hilabetean.

Hasteko guk denda fisikoa izango dugunez, lokal propioa beharko dugu. Bertan materiala gordeko dugu, katalogoa modu fisikoan izango dugu eta bezeroekin harremaretan jartzeko eremua izango da. Printziaz ez dugunez lokala erosteko asmoa alokatu egingo dugu, alokairuaren prezioa hilabeteko 600€ da. Kostu hau zuzena izango da zuzenean ordainduko dugulako eta finko beti berdina izango delako, nahiz eta ekoizitako kantitatea aldatu. Bertan ordenagailua eta telefonoa izango dituko webguneko gestioak eta telefono deiei erantzuteko. Ordenagailuaren prezioa 580€koa izango da eta telefonoaren tarifa aldiz 20€ hilabeteko. Horrez gain lokalean ura eta argia izango ditugu. Horie kostu aldakorrak izango dira ekoizitakoaren arabera aldatzen direlako, lehenengo hilabetean uraren kostua 50€koa izango da eta argiarena, aldiz, 100€koa.

Gure proiektua aurrera aterako material asko behar dugunez eta bertan diru asko inbertitu beharko dugunez, gertuko materialak erostea erabaki dugu materialaren garraioa merkeagoa izateko, kasu honetan 500€koa izango da. Aurretik aipatu bezala material asko erosi beharko dugu, hori dela eta prezioa altua ordaindu beharko dugu esate bateko 10.000€

Gure enpresan 5 langile izango gara eta guztiok soldata bera izango dugu. Lehenengo hilabetean 1500€ irabazi ditugu langileko. Horrek horrela jarraitzea aurreikusten dugu aldaketarik egin gabe. Beraz, hilabeteko 7500€ko kostua izango dugu. Salbuespenak ere gerta daitezko, ala nola lagileren bat ordu gehiago sartzea eta horrelakoak. Kasu horretan kopuruak aldatuko lirateke.

Azkenik gure produktua ezaguna egiteko eta jendearengana iristeko publizitatea egitea erabaki dugu. Mota desberdinetako iragarkiak egingo ditugu eta honen kostua 250€koa izango da.

Beraz lehenengo hilabate honetan kostu guztien batura, hau da, lokalaren, argiare, urare, materialen, soldaten, publizitatearen, garraioaren eta ordenagailu eta telefonoen batura 19.700€ izango da.

Materiala	Prezioa unitateko	Kantitatea	Guztira
Lokala	600€/hilabeteko	1	600€
Ura	50€	1	50€
Argia	100€	1	100€
Hornitzaileei erosketak	10000€	1	10.000€
Soldatak	1500€/langileko	5	7500€
Garraioa	500€	1	500€

Publizitatea	250€	1	250€
Ordenagailua eta telefonoa	600€	1	600€
GUZTIRA			19700€